



EBAZPENA, 2021EKO OTSAILAREN 12KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO MAILAKO ADMINISTRAZIOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOETAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN IRAKASKUNTZA-KIDEGOETAKO FUNTZIONARIOEN ERKIDEGO MAILAKO 2020/2021KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA MEREZIMENDUEN BAREMOAN LORTUTAKO PUNTUAZIOA ARGITARA EMATEN DITUENA

Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2020ko azaroaren 4a), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko urtarrilaren 19ko ebazpenaren bidez eman ziren onartutakoaren eta kanpoan utzitakoaren behin-behineko zerrenda, eta merezimenduen baremoan lortutako puntuazioak argitara.

Aipatutako 2020ko urriaren 22ko aginduak, hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak berrikusi dira eta, behar zirenak aintzat hartu ondoren, aldaketak egin dira. Halaber, barematzean atzemandako beste akats batzuk ere zuzendu dira. Akats horien ondorioz, parte-hartzaile batzuek puntuazio handiagoa edo txikiagoa izan dute baremoaren zenbait ataletan.

Horiek horrela, behar ziren aldaketak egin ondoren eta Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak hogeita bostgarren oinarrian xedatutakoaren arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- Argitara ematea Euskal Autonomia erkidego mailako administraziooko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren parte-hartzaileen behin betiko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.



Hirugarrena.- Interesatuak gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 12a